



GUREAKek Minebea AccessSolutions automozio enpresaren berrikuntza saria jaso du

Donostia, 2023ko uztailaren 28a. Minebea AccessSolutions (MAS) enpresak, ibilgailu eta kontrol-panelen sarbide sistemetan eta mekanismoetan espezialista dena, berrikuntza saria eman zion GUREAKi pasa den uztailaren 21ean. Sari banaketa Turinen egin zen, "Minebea Supplier Day" ren lehen edizioaren testuinguruan, eta kalitate, logistika, zerbitzu eta erosketa sariak ere banatu ziren.

Horrela, gaur egun 100.000 langile inguru dituen eta 27 herrialdetan lan egiten duen enpresa-taldeak balioa eman nahi izan dio GUREAKek Paddle multzoaren diseinu eta industrializazioaren ko-garapenean berrikuntzan egindako lanari. Honako multzoa, Maseratti Grecalen (M182) modeloaren atak irekitzeko sistema argiztatu eta ukigarria da.

Berrikuntza-prozesuan zehar, GUREAKek hainbat erronkari erantzun behar izan die epe oso estuetan, hala nola, estankotasunari. Eider Arruabarrenak azaldu duenez, GUREAKeko Key Account Managerra MASentzat, "hilabete gogorak izan ziren hainbat proba eta lan eginez, izan ere, oso denbora gutxian entregatu behar izan baikenituen kableatuarekin mihizatutako eta probatutako lehen piezak, injekzioko, elektronikako, laser-soldadurako eta kapsulatzeko pieza plastikoak, hain zuzen ere".

Paddle Assy M-182 modulua GUREAK Industrialek lan egiteko moduaren adibide ona da, produktu multiteknologikoak garatzen baititu bezeroekin lankidetzan estuan; plastikozko injekzioa, kableatua eta elektronikoa barne. Egun, bere ildo estrategikoari jarraiki, GUREAK elektronikaren arloan inbertitzen ari da, datozen urteetan esparru horretan hazteko helburuarekin. Une honetan, modulua linea erdiautomatikoetan garatzen ari da Errenteriako (Gipuzkoa) lantegian.

Alex Medel, GUREAK Industrialeko zuzendari komertziala, pozik agertu da sariarekin, eta adierazi duenez, "sari honek indartu egiten du GUREAKen posizionamendua, automozioaren sektorea bezain zorrotzak diren eta etengabe aldatzen ari diren sektoreetan berrikuntzarako duen gaitasuna partner multiteknologiko gisa agerian utziz".

GUREAK, gaitasunak lantzen

GUREAK taldeak desgaitasuna duten pertsonentzako lan aukera egonkorak sortu eta kudeatzen ditu. Bere ibilbide luzean zehar, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa eredu berri bat sortu du, eta eredu hori erreferente bihurtu da Europan.

Gaur egun, 6.000 pertsona inguruk osatzen dute taldea, eta horietatik %84k desgaitasunen bat dute. Talde sendoa eta dibertsifikatua da, eta batez ere industriaren, zerbitzuen eta marketinaren sektoreetan lan egiten du.